

11/2019 UDALEKO OSOKO BILKURA

2019ko UZTAILAREN 24ko EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Saioa Tolosa Zubelzu
Amaia Urkola Arozena
Aitzol Esnaola Zubeldia
Esther Iztueta Zelaia
Jokin Tolosa Zabala
Rafael Uribarren Axpe
Agurtzane Nuñez Yarza
Aitzol Arocena Zufiria
Jaime Peon Ormazabal
Nuria Carbonell Miranda

IDAZKARIA:

Jon Burgaña Agoues

Anoeta Hiriko udaletxean, 2019ko uztailaren 24an arratsaldeko seirak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohi kanpoko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; eta neu, Jon Burgaña Agoues jauna, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

- Alkate ordeen izendapena:

“DEKRETUA.- Anoetan, 2019ko uztailak 11

Kontuan harturik 2019ko ekainaren 15ean ez ohiko udal bilkuran Udal eraketa egin zela.

Toki-jardunbideko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikulua jasotakoa betez, alkateordeek alkatea ordezkatzeko dute, izendatu diren ordenean, kargua hutsik badago, alkatea ez badago edo gaixo badago; alkateak izendatzen eta kentzen ditu bere ordekoak, zinegotzien artean.

Dagozkidan eskuduntzen arabera, ERABAKI DUT:

Lehena.- Zinegotzietatik hurrengo alkate ordeak izendatzea:

- 1. Alkate ordeak: Saioa Tolosa Zubelzu, E.H. Bildu udal talde politiko kidea den zinegotzia.*
- 2. Alkate ordeak: Amaia Urkola Arozena, E.H. Bildu udal talde politiko kidea den zinegotzia.*

Bigarrena.- Izendatu direnei jakinaraztea eta era berean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udalbatzak egingo duen hurrengo bilera arruntean.

Honela agindu eta sinatu du Pedro M^a Estanga Lasa alkateak”.

- Talde politikoen bulegoen hautaketa:

“DEKRETUA.- Anoetan, 2019ko uztaileak 1.

Ikusirik talde politikoen erabilpenerako udaletxean bi areto daudela, bigarren solairuan aurkitzen direnak: 2. aretoa (ezkerrean) eta 3. aretoa (eskuinean).

Dagozkidan eskuduntzaz baliatuz, HONAKOA EBATZI DUT:

Talde politiko bakoitzari hurrengo bulegoak esleitzea:

2. aretoa: Bildu

3. aretoa: EAJ-PNV

Honela agindu eta sinatu du Pedro M^a Estanga Lasa alkateak”.

2.- OSOKO BILKURAK EGITEKO MAIZTASUNA FINKATZEA.

Alkatetzak aurkeztutako proposamena ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU:

Lehena.- Udalbatza Osoaren ohiko bilkuren aldizkotasuna hilean behin finkatzea, hileko azken astelehenetan, 19:00etan.

Bigarrena.- Finkaturiko egun hauetakoren bat jai egokituko balitz, hurrengo lan egunean egingo litzateke ordu berean. Alkateak egun hori aurreratu edo atzeratu ahal izango du baldin eta jaiegunekin edo ustekabeko gertaerekin batera suertatzen bada. Kasu horretan, alde zuzenetik udal talde politikoei jakinaraziko zaie.

3.- INFORMAZIO BATZORDEAK ERATU, OSATU ETA HORIEN MAIZTASUNA FINKATZEA.

Alkatetzak aurkeztutako proposamena ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Ondorengo hiru Informazio Batzordeak eratzen dira, dagozkien arlo eta osaketarekin.

1.- ANTOLAKUNTZA: Informazio Batzorde honek ondorengo arloak eta osaketa ditu:

- **PETSONALA**, ondorengo zinegotzietan osatua:

Pedro M^a Estanga Lasa, batzordeburua. EH Bildu.

Esther Iztueta Zelaia. EH Bildu.

Nuria Carbonell Miranda. EAJ.

- **OGASUN ETA KONTU BATZORDE BEREZIA**, ondorengo zinegotzietan osatua:

Pedro M^a Estanga Lasa, batzordeburua. EH Bildu.

Esther Iztueta Zelaia. EH Bildu.
Jaime Peon Ormazabal edo Aitzol Arocena Zufiria. EAJ.

2.- LURRALDEA: Informazio Batzorde honek ondorengo arloak eta osaketa ditu:

- **HIRIGINTZA OBRA ETA ZERBITZUAK**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Aitzol Esnaola Zubeldia, batzordeburua. EH Bildu.
Pedro M^a Estanga Lasa. EH Bildu.

- **INGURUMENA-BASERRIA** (Tokiko Agenda 21), ondorengo zinegotzietz osatua:

Aitzol Esnaola Zubeldia, batzordeburua. EH Bildu.
Pedro M^a Estanga Lasa. EH Bildu.

Batzorde honetako azpibatzerdeetarako: Rafael Uribarren, edo Jaime Peon Ormazabal edo Aitzol Arocena Zufiria. EAJ.

3.- HERRITARRAK: Informazio Batzorde honek ondorengo arloak eta osaketa ditu:

- **GIZARTE ONGIZATEA**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Esther Iztueta Zelaia, batzordeburua. EH Bildu.
Saioa Tolosa Zobelzu. EH Bildu.

- **KULTURA** (Kirola-Gazteria), ondorengo zinegotzietz osatua:

Jokin Tolosa Zabala, batzordeburua. EH Bildu.
Amaia Urkola Arozena. EH Bildu.

- **EUSKARA eta HEZKUNTZA**, ondorengo zinegotzietz osatua:

Amaia Urkola Arozena, batzordeburua. EH Bildu.
Jokin Tolosa Zabala. EH Bildu.

- **PAREKIDETASUNA** (Berdintasuna eta Kultur Aniztasuna), ondorengo zinegotzietz osatua:

Saioa Tolosa Zobelzu, batzordeburua. EH Bildu.
Aitzol Esnaola Zubeldia. EH Bildu.

Batzorde honetako azpibatzerdeetarako: Rafael Uribarren, edo Agurtzane Nuñez Yarza edo Aitzol Arocena Zufiria. EAJ.

Bigarrena.- Informazio Batzorde guztiak hilean behin izango dira eta bertaratzeko partaide guztien ahalmenaren arabera finkatuko dira egunak eta orduak. Hauek zehaztuta, Batzordeko kideei bileren deialdia gutxienez 48 ordu lehenago zaie, presazkoak direnean izan ezik. Nolanahi ere, dagokion gai-zerrenda erantsi behar zaio deialdiari.

4.- KIDE ANITZEKO ORGANOETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Alkatearen proposamenaren berri ematen da. Bertan, Udalbatzak ordezkariak behar duen mota guztietako batzorde, erakunde eta elkarte horietarako izendatu beharreko ordezkariak jaso ditu, erakunde bakoitzaren estatutuek ezarritakoaren arabera.

Proposamena, ikusi eta aztertu ondoren, bozketara eraman da ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: SEI (EH Bildu taldearenak)

Aurkako botuak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BOST (EAJ taldearenak)

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz:

ERABAKI DU:

Lehena.- Honako ordezkariak izendatzea, kide anitzeko organoetan Udalbatza ordezkariak deitzen:

- **Mendi Nekazaritza (Tolomendi) Elkarte**:
Titularra: Pedro M^a Estanta Lasa
Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **Gipuzkoako Ur Kontsortzio**:
Titularra: Pedro María Estanga Lasa
Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **Tolosaldea Garatzen**:
Titularra: Pedro María Estanga Lasa
Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitate**:
Titularrak: Amaia Urkola Arozena eta Jokin Tolosa Zabala
Ordezkoa: Pedro M^a Estanga Lasa eta Saioa Tolosa Zubeldia
- **Tolosaldeko Zabor Mankomunitate**:
Titularra: Pedro María Estanga Lasa
Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **Tolosako Hiltegi Mankomunitate**:
Titularra: Pedro M^a Estanga Lasa
Ordezkoa: Aitzol Esnaola Zubeldia
- **Loatzo Musika Eskolako Herri Mankomunitate**:
Titularra: Jokin Tolosa Zabala
Ordezkoa: Amaia Urkola Arozena
- **Apattaerreka Industrigunea, S.L.**

Titularra: Pedro María Estanga Lasa

- **UDALBILTZA Partzuergoa:**

Titularra: Pedro María Estanga Lasa

- **HAURRESKOLAK Partzuergoa:**

Titularra: Pedro María Estanga Lasa

5.- **DEDIKAZIOAK, ORDAINSARIAK ETA KALTE-ORDAINAK FINKATZEA.**

2019. urterako udal kargu publikoen dedikazioak eta horien ordainsariak, eta, halaber, bilkuretara joateagatik kalte-ordainak finkatzeko proposamena aurkeztu du Alkateak.

Proposamena ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Pedro María Estanga Lasa Alkate-Lehendakariak dedikazio osoan jardungo du.

Bigarrena.- Pedro María Estanga Lasa Alkate-Lehendakariak ondorengo ordainsaria izango du, indarrean dagoen araubidearen arabera, eta hautatua izan zeneko ondorio-datatz: 2.702,32 € gordinak, 14 hilekotan. Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorraren arauak enpresei, beren kontura dituzten langileei dagokienez, ezartzen dizkieten betebeharrak.

Hirugarrena.- Udaleko bilkuretara joateagatik, Udalbatza eta Informazio Batzordeetara, kalte-ordain hauek finkatzea, dedikaziorik onartuta ez duten zinegotzientzat:

- Informazio Batzordean eta Udalbatzan: 25 €

- Batzordeburu modura parte hartzeagatik (Informazio Batzordean eta Udalbatzan): 40 €

Laugarrena.- Gastua baimendu eta gauzatzea indarrean dagoen aurrekontu orokorraren kontura.

Udalbatzaren Osoko bilkurak alde aurretik onartu behar du ondorengo puntuak aztertzea eta ebaztea, eta haien berri emango da dagokion informazio batzordeak egingo duen hurrengo bileran.

Proposamena, ikusi eta aztertu ondoren, bozketara eraman da ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: SEI (EH Bildu taldearenak)

Aurkako botuak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BOST (EAJ taldearenak)

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz ERABAKI DU Udalbatzarrarekin jarraitzea eta ondorengo gaiak ebaztea.

**6.- ANOETAKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORREKO
“A-14 LASARBE” EREMUKO PLAN PARTZIALAREN 1.
ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONESPENA.**

2019ko apirilak 5eko alkate dekretu bidez, A-14 Lasarbe Sektoreko Plan Partzialaren 1. Aldaketari hasierako onespena eman zitzaion. 2019ko apirilaren 25eko GAOn argitaratuz.

Jendaurreko erakustaldian, Construcciones Aburuza,SL. enpresak ondorengo alegazioa egin du:

“1. RA.B3 eraikineko erabilera tertziarioetarako lokalen azalera indarrean dagoen Pla Partzialean 338m²koa da eta ez 388 m²koa balorazio txostenean agertzen den modura.

2. 338 m² hauetatik, indarrean dagoen Plan Partzialean eskatzen den zatia kendu egin beharko da, alegia 122,98 m².

Ondorioz, balorazioaren gehikuntza ondorengoa izango da: $(338 - 122,98) \times 0,3601 = 77,43 \text{ m}^2$ eta azalera horren %15: $77,43 \times 15\% = 11,61 \text{ m}^2$.

Azalera horri 483,23 €/m² prezioa ezarriz, balorearen gehikuntza ondorengoa izango da: $11,61 \text{ m}^2 \times 483,23 \text{ €/m}^2 = 5.610,30 \text{ €}$ ”.

2019ko ekainaren 7an, udal arkitekto aholkularia den Raimundo Mendiburu Abadek bere txostenean zera dio:

“.../... 1B. Balioespena:

Plan Partzialean zehaztutako erabilera tertziarioari dagokion azaleraren neurketari dagokionez, alegazioaren idazleak arrazioa du eta neuketa erreala 337,59m²koa da.

Hala ere, ustez, indarrean dagoen Plan Partzialak atarietarako erabili behar zuen azalera ez kontatzeko proposamenak ez du hirigintza justifikaziorik, erabilera tertziarioan dagokion azaleraren barruan ezin baita jaso atariaren gisako bizitegi erabilerarik, eta beraz, ezin daiteke kendu atariaren ustezko azalera erabilera tertziarioaren azalerari.

Gainera, era berean, bizitegi erabilearen hazkundearen kalkulutako emaitza azalera errealekin zehaztua zegoela dela egiaztatu da, nahiz eta erabilera tertziarioaren azalera ez den zuzena.

Beraz, beharrezko doikuntza egin ondoren, hurrengo eran geratu da balioespena:

Erabilera tertziario bihurtu den bizitegi erabilearen azalera 337,58m²koa da, hortaz, hazkundera $0,3601 \times 337,58 \text{ m}^2 = 121,56 \text{ m}^2$ (bizitegi erabilera)

Hazkunde horren balio monetarizatua: $121,56 \text{ m}^2 \times 483,23 \text{ €/m}^2$ (solairu altuetako balio katastrala) = 58.741,43 €.

Eta Administrazioari dagokion %15-a: 8.811,21 €.

.../...”

Euskadiko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 legeak, 95.2 artikuluan arautu du Plan Partzialen izapidetza. Hasierako onarpena Alkate Dekretuz eman ondoren, jendaurrean jarri eta alegazioei erantzun behar zaie, behin behinekoz onartu aurretik. 3000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan behin-behineko akordioa Udalak hartu behar du eta jarraian espedientea osorik Foru Aldundiari bidali behar zaio, bera baita eskuduna behin betiko onarpena emateko, Euskadiko Lurzoru eta Hirigintza 2/2006 legeko 95.3 artikuluari jarraiki.

Udal barruan Plan Partzialaren behin-behineko onarpena emateko organu eskuduna Udalbatza da, Toki Erregimenaren Oinarrizko 7/85 legeak, 21.1.j) eta 22.2.c) artikulutan xedatutakoaren arabera.

Proposamena, ikusi eta aztertu ondoren, bozketara eraman da ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: SEI (EH Bildu taldearenak)

Aurkako botuak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BOST (EAJ taldearenak)

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz:

ERABAKI DU

Lehena.- Construcciones Aburuza, SL, 2019ko maiatzaren 15ean eginiko alegazioari buruz, haztatutako eraikigarritasun handipenari dagokion ordaindu beharreko kopurua 8.811,21 €ra murriztea eta balioespenari dagokion atalean deskribatutakoan oinarrituta alegazioa ez onartzea.

Bigarrena.- Pedro Aburuza Rezola, Construcciones Aburuza, S.L enpresaren izenean, A-14 Lasarbe Sektoreko Plan Partzialaren 1. aldaketari behin behineko onarpena ematea.

Hirugarrena: Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiko lurralde antolamendu departamentuari bidaltzea, behin betiko onar dezan “ A-14-LASARBE “ SEKTOREKO PLAN PARTZIALA.

7.- 2019KO AURREKONTUAREN 3. KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuak onartutako Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2019rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibideak, GAOn 2018ko azaroaren 27an argitaratutakoak dioenez, 2018ko eta 2019ko urteen artean gastu konputagarriaren bariazioa %2,7 baino handiagoa ez izatea.

2019ko Aurrekontuaren datuen arabera, Anoetako Udalak ez du betetzen aurrekontu gastuaren araua. Ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu denez, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeztu, Udalbatzar honi egoera honen jakinaren gainean jartzen zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera (1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikulua).

EAJko zinegotzia den Rafa Uribarren jaunak bere harridura agertzen du diru kopurua haundia delako, eta Alkateari aurrikuspen falta egon dela adierazi dio, izan ere, zenbait partida hasiera 0 €koak baitira. Bestalde, Idazkari-kontuhartzailearen txostenean Gastu Araua ez dela betetzen agertzen dela dio, eta honek ondorio larriak ekar ditzazkeela dio. Laburbilduz, amaitzen du esaten Kreditu Aldaketaren kontzeptuarekin bere taldea ados dagoela dio, baina ondorio ekonomikoekin kontuz ibili behar dela.

Hitz hauei Alkateak erantzun dio lehentasuna inbertsioei ematen zaiela. Bestalde, dio 2019ko aurrekontuetan sarrera/gastuak justuak izan zirela, eta hortaz, Kreditu Aldaketaren arrazoia, 2018ko aurrekontuaren likidazioa egin eta gero. Alkateak gaineratzen du, adibidez, realojoek 300 mila €ko sarrera suposatuko dutela Udalarentzat, eta gero bere gastua ere izango dutela eta hori dagokion partida egokia jarrita kudeatu behar dela. Bestalde, Alkateak ere dio aurrikuspen batzuk ez direla errazak urte hasieran egitea, adibidez, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, ezin delako jakin zenbat onuradun izango diren urtean zehar zerbitzuan, eta zehazki, 2019an onuradun kopurua izugarri igo da.

Proposamena, ikusi eta aztertu ondoren, bozketara eraman da ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: SEI (EH Bildu taldearenak)
Aurkako botuak: BOST (EAJ taldearenak)
Abstentzioak: BAT ERE EZ

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz:

ERABAKI DU

Lehena.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, ONDOKO proposamenaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.601.153.20.01 2019	BENTALDEKO ASFALTATZE LANAK	0,00	145.900,00	145.900,00
1 0000.227.924.00.07 2019	ETXEBIZITZAKO AHOLKULARITZA	0,00	13.900,00	13.900,00
1 0000.623.342.10.02 2019	KIROLDEGIAN PLAKA FOTOBOLTAIKOA	0,00	20.000,00	20.000,00
1 0000.622.326.00.01 2019	LOATZO SOLKORRE 4	0,00	12.460,00	12.460,00
1 0000.609.920.40.01 2019	APARKALEKU PROIEKTUA	0,00	15.000,00	15.000,00
1 0000.222.920.20.05 2019	INFORMATIKA KOMUNIKAZIOAK	3.500,00	1.383,00	4.883,00
1 0000.226.231.50.99 2019	HAINBAT GASTU. PAREKIDETASUNA	8.000,00	4.000,00	12.000,00
1 0000.227.230.00.99 2019	ADIN TXIKIKOEN ESKUHARTZE ZERBITZUA	20.000,00	2.000,00	22.000,00
1 0000.480.231.30.01 2019	DIRULAGUNTZAK GIZA LARRIALDIAK	24.050,00	2.000,00	26.050,00
1 0000.227.231.10.99 2019	ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA	67.000,00	40.000,00	107.000,00
1 0000.471.323.10.01 2019	DIRULAGUNTZA. ANOETAKO HERRI-KASTOLA	69.000,00	100.000,00	169.000,00
1 0000.623.153.30.01 2019	MAKINERIA: HAIZE MAKINA	6.000,00	90.000,00	96.000,00
1 0000.227.151.00.07 2019	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK. HIRIGINTZA	4.000,00	15.000,00	19.000,00
	GUZTIRA	201.550,00	461.643,00	663.193,00

1

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2019	DIRUZAINZTA GERAKINA	461.643,00
		FINANTZAKETA GUZTIRA	461.643,00

Bigarrena.- Ebazpen hau eta horretarako izapidetutako espediente jendaurreko informazioan jartzea 15 laneguneko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tokiko Erakundeen Aurrekontu Erregelamenduaren 34.3 artikulua eta berak zuzendutako 15,17 eta 18 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak ezarriz. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

8.- LOATZO MUSIKA ESKOLARI, SOLKORRE 4ko BEHE SOLAIRUAN DAGOEN UDAL JABETZAKO LOKALAREN LAGAPENA EGITEKO SINATUTAKO HITZARMENAREN BERRI EMATEA.

2019ko maiatzaren 22ko datuz onartutako hitzarmenaren berri ematen da.

“LOATZO MUSIKA ESKOLARI SOLKORRE 4KO BEHE SOLAIRUAN DAGOEN UDAL

JABETZAKO LOKALAREN LAGAPENA EGITEKO HITZARMENA

Anoetan, 2019eko maiatzaren 22an,

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

PELLO ESTANGA LASA jauna, Anoetako Udaleko alkate-lehendakaria, Udal horren izen eta ordezkartzan diharduelarik Udalbatzak 2015eko ekainaren 13an harturiko erabakiaren indarrez.

Eta bestetik,

Unai IRAOLA AGIRREZABALA jauna, adinez nagusia, 72.492.943W N.A.N. zenbakiduna duena eta Loatzo Musika Eskola Udalen Mankomunitatearen lehendakaria dena. Mankomunitate horren izen eta ordezkartzan diharduelarik Administrazio Batzarrak 2006ko martxoaren 31an harturiko erabakiaren indarrez.

ADIERAZI DUTE

- 1.- Bi aldeek kontratu hau sinatzeko nahiko ahalmen eta kompetentzia aitortzen diote elkarri
- 2.- Anoetako Udala udalerrri honetako SOLKORRE 4 etxapean dagoen lokalaren jabe da, lokal hori Udaleko ondare zerrendan inskribatuta dagoelarik eta ondarezko ondasun gisa sailkaturik.
- 3.- Loatzo Musika Eskola Udalerrien Mankomunitate bat da, eta herri hauek osatzen dute: Aduna, Alegia, Al-tzo, Anoeta, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkil.
- 4.- Mankomunitate honek lokal bat behar du egoitza nagusi gisa erabiltzeko.
- 5.- Anoetako Udalak eta Loatzo Musika Eskolako Mankomunitateak interesa dute ekimenek ahal den neurrian Anoetako herrian sustraitu eta eragina izan dezaten, ezen horrek, zalantza izpirik gabe, alde-aldeko eragina izango baitu Anoetaren onurarako. Horregatik egoki jotzen da udal titularitateko lokalaren erabilera lagatzea, ulertzen baita ondasuna, denboraldi zehatz baterako, irabazpen asmorik ez duen eta interes publikoa bilatzen duten elkartei dohainik lagatzea eskubidezkoa dela, Toki Elkartearen Ondasunen Araudiaren 109-2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- 6.- Adierazitako guztiagatik, bi aldeak akordioa lortu dute lokalaren erabileraren lagapena gauzatzeko, eta hala egingo dute jarraian idatzitako baldintzen arabera.

BALDINTZAK

LEHENA: Anoetako Udalak Solkorre 4 etxapeko lokalaren erabilera lagatuko dio, dohainik eta denbora zehatzerako, Loatzo Musika Eskolari.

BIGARRENA: Lagapen epea lau (4) urtekoa izango da, hitzarmen hau izenpetzen den datatik aurrera kontaturik, eta automatikoki urtebeteko epez luzatu ahal izango da, gehienez ere beste lau urtez (40/2015 legearen 49.h) artikulua kontuan izanik). Hau ez da horrela izango bi aldeetako batek idatziz espresuki salatzen badu, elkarren akordioz edo aldebateko erabakiz, aurreikusitako epeak amaitu baino hiru hilabete



ANOETAKO
UDALA
Lehenago.

HIRUGARRENA: Anoetako Udalak hitzarmen hau amaitutzat eman ahal izango luke lagapen honen amaiera data baino lehen. Hori espresuki jakinarazi beharko dio Loatzo Musika Eskolari, lagapendunek lokala utzi behar duten data baino hiru hilabete lehenago. Aurreratutako etete horrek ez dio inolako indennizazio eskubiderik sortuko lagapendunari.

Nolanahi ere, adierazitako edozein arrazoi dela eta lagatzea amaitzen denean, lagapendunak lokala hutsa eta erabiltzeko egoera onean utzi beharko du. Egintza honetan jasota geratzen da Mankomunitateak erabiltzeko egoera onean jasotzen duela.

LAUGARRENA: Lokala ezingo da Mankomunitatearen helburu sozialean aurreikusten ez den helburuetarako erabili. Era berean, ezingo zaio hirugarren bati laga, erabat edo partzialki, ez baldin badago Udalaren berriazko baimenik. Klausula honetan aurreikusitako ez betetzeak lagapen kontratua etetea ekarriko du, interesatuari 10 egunetako audientzia epea eman ondoren.

BOSGARRENA: Okupazio aldian zehar lagapendunak lokala egoera egokian iraunarazi beharko du, bere konturakoak izango direlarik lokala ohiko erabilerarako erabilia izan dadin bertan egin beharko diren konponketa arruntak eta hobekuntza lanak ere. Hori guztia egiaztatzearen Udalak higiezina ikuskatzeko ahalmena izango du.

Aipatu lokaletan egin beharreko eta hobekuntzarako obra bakoitzeko Anoetako Udalaren baimen berriazkoa beharko du erabiltzaileak, burutzen den obra Anoetako Udalaren onurarako geldituko delarik eta lagapendunak egindako lanengatik indennizaziorik eskatzeko eskubiderik izango ez duelarik.

SEIGARRENA.- Lagapendunaren (Mankomunitatearen) konturakoak izango dira ere, lokala gozatzearen berezko ordain gisa, ur, argi, telefono eta iraunarazpen eta zaintzarako gainontzeko gastu guztiak, nola baita ere higiezinaren aseguruari eta jabekideenari dagozkionak

ZAZPIGARRENA: Loatzo Musika Eskolako Mankomunitateak konpromisoa hartzen du erantzukizun zibileko aseguru poliza bat gauzatzeko, lokalean jarduera garatzearen ondorio gerta litezkeen kalteez erantzuteko. Horrela, lokalaren titularrari kalterik ez zaiola ondorioztatuko ziurtatzen da.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen honetan arautzen ez dena gai honi buruzko araudi orokorrean aurreikusitakoaren arabera arautuko da. Anoetako Udalak hitzarmen honetan jasotakoa interpretatzeko gaitasuna gordeko du, eta desadostasunek jarraituko balute, Anoetako Udalerrian jurisdikzioa duten epaitegi arruntetan argituko dira.

Adostasun modura bi aldeek hitzarmena sinatzen dute, ale bikoiztuan, goian adierazitako egunean.

PELLO ESTANGA LASA
Anoetako Alkateak

UNAI IRAOLA AGIRREZABALA
Mankomunitateko Presidentea”

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko seiak eta berrogei direnean; guzti honetaz, nik, Jarduneko Idazkariak, fede ematen dudalarik.

Alkatea

Idazkaria